

Seme-alabak nola motibatu ikastera

Seme-alabentzako eskolarako motibazioak, eraginkorra izan dadin, etengabea izan behar du. Ez da nahikoa seme-alabak motibatzea ariketak erakargarriak direnean edota irakaslea ona denean bakarrik, hain egokiak ez direnetan ere motibazioa mantendu egin behar da. Ariketak egitea beti sarien mende soilik utzi beharrean, egin behar dituztela jakinarazi behar zaie “egin dezaketen” zerbait delako eta, gainera, “egiteak” gaitasun eta segurtasun sentimendua eskaintzen dielako. Familiak, seme-alaben eguneroko bizitzan eredu izan behar du, eta eragin egokia eskaini. Esate baterako, ezagutza, irakurketa eta eskolarekiko jarrera positiboa azaldu, eskola-errendimendua alde batera utzita harreman afektibo orekatua eduki, eta umeen gaitasunak/trebetasunak nabarmenduta euren lanean lagundu.

Familiak ikastetxeko irakasleekin etengabe elkarlanean aritu behar du, ez arazoak agertzen direnean bakarrik; izan ere, elkarren arteko lana ezinbestekoa da seme-alaben heziketa aurrera eramateko. Gainera, seme-alabek eskolan egunero egiten dutenaren eta etxerako lanen berri izan behar du familiak. Horretarako, honako iradokizun hauek kontuan hartu beharko dituzue:

1. Seme-alabak, ikasteko toki aproposa eduki behar du, materialak (arkatza, papera, erregela, etab.) leku berean eta leku hori txukun mantendu.
2. Etxeko-lanekin errutina bat ezarri, lan egin eta atsedean hartzeko toki eta ordu aproposenak seme-alabarekin batera adostu.
3. Laguntza eskaintzeko asmoarekin bada ere, gurasoek ez dituzte umearen etxeko-lanak egingo, (gauza bera litzateke seme-alaben ordez gurasoek kirola egitea, kirolean parte hartzen utzi beharrean, eta euren ahaleginetan animatu beharrean).
4. Euren buruarekiko konfiantza indartu: zerbait galdetzen dutenean, elkarrekin konponbide bat bilatzea proposatu, erabakiak eta ardurak har ditzan utzi, eta ez konparatu beste inorekin.
5. Euren izaeragatik, eta ez euren arrakastengatik, maitatzen dituzuela jakinarazi.
6. Koherenteak izan: irakurri behar dutela eskatzen bazaie, geuk ere irakurri egin behar dugu. Eurei utzi irakurri behar dutena hautatzen.
7. Mezu negatiboak, esaterako: “ez duzu ezertarako balio”, “ikasle txarra zara” edo horrelakoak, ez erabili; aitzitik, bere arrakastak ospatu, oso txikiak badira ere.
8. Beteko ez diren zigorrekin ez mehatxatu. Beti konponbide edo paktuak bilatzen saiatu.

LABURPENA

Etxeko ariketetan laguntza eskaintzeko estrategien aniztasunak, seme-alabengan konfiantza indartzeko ideian oinarrituta egon behar du, besteekin konparatu gabe eta mezu negatiborik transmititu gabe; aitzitik, eskolarekin lotutako gauzekiko jarrera positiboa mantendu behar da, ikasteko eta lan osteko atsedena hartzeko ohiturak irakatsi eta ezarri egin behar dira. Ez da komenigarria etxeko-lanak euren partez gurasoek egitea, bai, ordea, jarraitutako prozesua berrikusi eta amaieran gainbegiratu.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández

Dr. Juan Luis Martín Ayala

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate Zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia